

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Jesus Fernandez de Arroiabe Pagoaga

*Eskoriatza,
Gipuzkoa
(1934-2021)*

Aurkibidea



Biografia



1934an jaio zen Marulanda tabernan (Zarimutz elizatea). Ama Leintz Gatzagakoa zen; aita, berriz, Argentinan jaio zen Jesusen aitajauna hara joanda zegoelako, baina 5 urterekin etorri zen berriz Marulandara. Amak Marulandako tabernan denda ere jarri zuen. Marulandako eskolan hasi zen ikasten Jesus. Geroago, 14 urtera arte Eskoriatzan ikasi zuen "Hermano" Luisekin. Handik Bergarako Elemental eskolara joan zen bi urterako. Bergaran txirrindulari "karrera" atera omen zuen. Espainiako ziklo-kros txapelketan parte hartu zuen Sabadellen (1953). Munduko txapelketan ere egon zen, Luxemburgon (1956). Plater-tiroan oso ona da. Errusiako olinpiadetan (1980), Moskun, brontzezko domina lortu zuen Espainiako taldearekin.

Zintak

ESK-048

- **Proiektua:** Deba Eskualdeko Ahotsak - Eskoriatza.
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Data:** 2009-04-27
- **Iraupena:** 62 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Goiria Mendiolea, Nerea
- **Transkribatzailea(k):** Goiria Mendiolea, Nerea

ESK-049

- **Proiektua:** Deba Eskualdeko Ahotsak - Eskoriatza.
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Data:** 2009-04-27
- **Iraupena:** 8 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Etxeberria, Idoia

Pasarteak

1. Aita Argentinan jaioa

- **Erref:** ESK-048/001
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:01:40

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Marulanda auzoan jaio zen 1934ko martxoaren 23an. Gurasoak Leintz Gatzagakoak ziren, aita Argentinan jaioa zen baina bere aurrekoak ere Leintz Gatzagakoak ziren.

Transkripzioa

- Esango dostazu izen-abizenak faborez?
- Jesus Fernandez de Arroiabe Pagoaga.
- Pagoaga?
- Pagoaga bigarrena bai.
- Eta nun, nun eta noiz jaixo ziñan? Jaixo hemen etxe hontan jaixo ziñan?
- Bai, bai hementxe.
- Marulandan, zela dauko izena etxe honek?
- Ba auzua?
- Ez, ez etxiak.
- Bar Marulanda beti.
- Marulanda taberna.
- Bai, merendero Marulanda.
- Eta ze, ze egunetan jaixo ziñan?
- “Veinti tres de marzo del treinta y cuatro”
- Zure aitta-amak nungoak ziren?
- Aitta ta ama? Gatzakuek, Salinaskuek.
- A, Gatzagakuek bixak?
- Ama Gatzakue ta aitta, aitta be bai, gure aitta jaixo zan Argentinan jaixotakue da, baiña hemengu izatez e, Gatzagan gauko parentsekue ta dana.
- Osake zure aitten...
- Aitten aitte-edo hau euen, berori jaixo zan, nire aitte jaixo zan Argentinan.
- Osake orduen zure aittajauna hametik fan zan?
- Hemendik fandakua lehenau ba oin faten diez, bueno oin ez, oin ez dakit faten dien baiña.
- Gerra aurretik orduen?
- Bai, bai.
- Osake aittajauna Argentinara fan eta zure aitta han jaixo zan.
- Bai etor zan bost urtekin-edo uste dot.

2. Eskolan non?

- **Erref:** ESK-048/003
- **Iraupena:** 0:01:24. **Hasi:** 00:04:22. **Bukatu:** 00:05:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

Eskolan Marulandara joan zen lehenengo, gero Eskoriatzan eta azkenik Bergarako eskola profesionalean, elementalean.

Transkripzioa

- Eskolan nun ibilli ziñan zu?
- Ni lehelengo, hemen aldameneko etxia? Hemen zan eskolia guria, hau aldameneko etxie geurie da, bizi dia semia eta alabia. Ta hor auen eskolia hemengo sarein emongo otsen hemengo danekua. Lehelengo hor.
- Marulandako eskolan, orduan?
- Bai, eta hor gero zerera, Eskoriatza, gero Eskoriatzan ta gero Bergarako eskola profesionalian, elementala deiketan jatzon orduen. Elementalien hantxe.
- Eskoriatzan nun ibili ziñan nazionaletan?
- Bai nazionaleko zerien. Nazionaleko han plazakuen ez e! gero han bahien ein zan frontoie, kanpofubola edo ifiñi euen han frontoi onduen hantxe, "Hermano Luis" frailiekin.
- Baiña zer ziran maristak-edo?
- Fraile bat euen orduen. Karo hor, Eskoriatzako badau hau komentua? Lehenau hor frailien zazen, lehenau. Ta hango fraille baten ein tson "Hermano Luis", jatorra, hak emoten euen eskolia, Eskoitzako hor.
- Eta hori ya gerria pasau ta gero.
- Ni gerriana ez naz akordetan, hori hori neure denporan.
- Ba nik euki nittun orduen ba horra fan nitzenien ba hamalau urte edo hamabi-edo holakoren bat.
- A ta hamar urte arte hemen, Marulandan egon ziñan?
- Hemen ta hor Eskoitzan ta gero, bai gero, gero hamalau-hamabost urte elementalea.

3. Txirrindulari profesional izandakoa

- **Erref:** ESK-048/006
- **Iraupena:** 0:03:54. **Hasi:** 00:07:00. **Bukatu:** 00:10:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Txirrindularitza

Laburpena:

<p>Bere lehenengo lasterketa Aretxabaletako ziklo-krosa izan zen, 1954an, eta irabazi egin zuen. Txirrindulari moduan aritu zen Espainiako txapelketan, Sabadellen, bigarren postua eskuratu zuen. gero Luxemburgora joan zen munduko txapelketara 1954-1955 inguruan, afizionatu moduan zegoen eta profesional egin zuten, 12. edo 13. gelditu zen. Handik etorri eta soldadu joan behar izan zen Gasteizera. Orduan dena utzi behar izan zuen.</p>

Transkripzioa

- Zu bizikletan ibilli ziñen garaixan ogibide zuekatzun bizikletia?
- Zela?
- Ogibide, profesioño modura bizikletia?
- Bueno, selekzionau ein eustien "campeonato de España"ko Sabadellen.
- Nunguen?
- Sabadell, Barzelonan egon zan. Nik lehenengo karrera korridu nauena orduen Aretxabaletan, ziklo-krosa egoten zan ba, Arantzazun Oñatin famosuek "el año cincuenta y tres" edo noz egon zan? "campeonato del mundo" Oñatin? Ziklo-krosa, Robick-eta.
- Ni hondiño jaixo barik neuen.
- Ba nik "en el año cincuenta y cuatro"en-edo korridu nauen lehelengo

karrera zeien, Aretxabaletan. Ta ikusi eistien salidan urteten eta gero metan, trofeue hartzen. Urten, hanka ein nauen eta adios! Orduen nengoen preparauta ondo, jentiek ezetu be ez dostien eitten, ta akordetan naz e Aretxabaltatik hara zera Copreci gaiñera igoten zan karreteran, zerera horra pantano aldera, ta euan zelaittik behera, Coprecittik behera bajetan zan ta ni ez eistien ezautu be eitten, Anton Barrutia-eta entzunda euko dozu?

- Entzunda bai.

- Barrutia (...), ta ni ondo preparauta neuan eta jo ta irabazi nauen karrera. Lehelengoko karrera. Aiba! Zela baiña? Fotografixe daukat berraiz hangua. Ta gero selekzionau eistien Sabadellera, "campeonato de España" korriduten. Ta in nauen bigarren, "campeonato de España" Sabadellen in nauen bigarren.

- Lehelengo aldiz korridu zeuenian?

- Lehelengoko karrera, bai.

- Ta orduen esan dozu...

- Gero erun eistien kanpeonato de mundura Luxenburgon korriduten zan "campeonato del mundo".

- Ze urtetan izan zan hori?

- Ba "cincuenta y cuatro-cincuenta y cinco". Kanpenato de mundua Luxenburgon, ta ni afizionau moduen nenguen baiña ekipue, Españakue, fan bihar euen kanpeonato de mundura eta ni ebatu eistien profesioaletara pasau eistien. Karo, "campeonato del mundo" profesionala zan ta ikusko auen lau hontatik nahiz ta ni afizonaue izen ta pasau eistien profesioaletara eta kanpeonato de mundure joan nitzen. Joan nitzen Anton Barrutia, Mitxelena, Joxe Mitxelena, Talabio difuntue hil zan Burgoskue hil zan, ta laurok fan giñen. Ta bukatu gauen Talabio aurretik ibilli zan, Mitxelenak hamahirugarren uste dot, joe ointxe (...) nau, hamabi-hamahiru, puesto bat bera aurrien edo ni atzien, holaxen sartu ginttan hamahiru-hamabi-hamahiruen gauen.

- Hori mundukuan?

- Kanpeonato de munduan, Luxenburgon. Handik etorri hori zan, handik etorri enda hori zan "diecinueve febrero del año..." febreruan... handik etorri eta soldau joan bihar nauen, Bitorixara. Orduen zozer eistien Bitorixara joateko soldau, soldadutzara, ta Bitorixa, handik etorri ta Bitorixara ta adios, gehixau karrerarik korridu bez. Soldau fan nitzenien, gero etxien kamioi bat geunken, ta faltan eitten nauela anaiakin basuan harantza ta honuntza ibiltzeko ta orduntxe itzi. Horren penie dakat, ez segidutia.

- Orduen zemat urtietan ibilli ziñan bizikletan konpetiziñuan?

- Ba gaztetan afizionau moduan hasi ta gero kanpeonato de mundura erun eistien, "campeonato de España" atara nauen Sabadellen, ta pasau eistein profesioaletara kanpeonato de mundura fateko. Karo, afizonaue nitzen baiña koño afzionau izena ikusten nauen profesionalei irabazten notsela ba erun eustien kanpeonato de mundura. Handik etorri ta kamioia zela etxon: "koño, honek falta itziok eta...", mutikua badakitzu, kondizuten gustau-edo, ta adios, gehixo, hortxe itzi nauen karrerie, korridutia. Horren oenie beti euki dot. Kauen la letxe, oin esate ostie: "Joe Indurainek-eta sei tur atara ittuen ta", bai nik be atara nekien segidu banau, ez dakitzu?, esaerie da.

4. Ziklo-krosean zein errepedean

• **Erref:** ESK-048/007

• **Iraupena:** 0:01:26. **Hasi:** 00:10:54. **Bukatu:** 00:12:20

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Txirrindularitza

Laburpena:

<p>Sabadell eta Luxenburgoko lasterketak ziklo-krosa ziren, baina ibili izan da errepidean ere. Arantzazukoan zortzigarren gelditu zen. Orduko kontakizunak dakartza gogora.</p>

Transkripzioa

- Eta Sabadelleko eta Luxenburgoko karrerak zer zien karreteran edo ziklo-krosa?
- Ziklo-krosa, ziklo-krosa.
- Osea, zu beti bibli izan zara ziklo-krosian?
- Karreteran be bai e! karretera hemen herri danetan atarata dauket, Eskoitzan, Aretxabaltan... Mondrauen...
- Arantzazukoa be esan dozu?
- Arantzazun zortzigarrena bai, akordetan naz. Arantzazun, orduen ni profesionalak korriduten euen Robick eta honek Rondeau-ta, ba onenak etorte zirien eta nik urten nau akordetan naz, Arantzazun behien urteeran, urteeran igoteko han behien, jausi gintzen mordua, batan batek errobedie-edo ikutu ta... Joe gero han Txopekuen goruntz jun bihar, Txopekure joaten naz tiro batzuk botaten, beti akordetan naz, Txope pareko ha ermittatxo bat euan, han parien beti akordetan naz. Mekauen, jentie hantxe pasetan pasetan pasetan pasetan, hartzen hartzen hartzen ta aurreraka ta aurrera baiña han galdu euen, entre jausi ta hor bestiek badakitzu aldatzien llanuen izen ezkerro ba "ra" sartzen zara baiña aldatzien ezin leike. Bai bai. Arantzazun allagau hara goiko, Miliku, zer da? Atzenengua? Tabernia? Han ez zan bukatu, goratxuau.
- Arantzazun bertan? Lehelengo dau Milikua, gero goixen Sindika.
- Sindika! Sindikan be ez zan akabetan e, goratxuau igo ta han bide bat-edo badau ba? Bai. Hantxe gaiñien akabetan zan orduen. Bai.
- Errepia akabaitten dan lekuan.
- Bai, bai.
- Osake Sindika gaiñian.

5. Gasteizko San Antonio zirkuitua

- **Erref:** ESK-048/009
- **Iraupena:** 0:01:05. **Hasi:** 00:13:10. **Bukatu:** 00:14:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Txirrindularitza

Laburpena:

<p>Gasteizen San Antonio zirkuitua egiten zen, zelakoa zen kontatzen du. eskolara joan-etorrian gogortu zituen hankak, baina bestela ere entrenatzera joaten zelan dio.</p>

Transkripzioa

- Bitorixan zirkuito eitten zan lehenau, San Antonio. Zirkuito bat, onak Oscar Elgezabal-eta, ez dakitt ezauketan jatzun, (...) onena Durangokue

zan ta han zirkuituen azkenengue fuera, azkenengue fuera, azkenengue fuera, azkenengue fuera, bigarren inda nau. Atzeneko bueltan danak fuera, gero ta gutxiau, gero ta gutxiau, azkenien bi geraketan zarenien ba lehelengo edo bigarren ein bihar, ta bigarren inda nau. Hantxe.

- Nok irabazi otsun?
- Oscar Elgezabal horrek, Durangoko horrek. (...) kristona. Txapamutikote zaharra.
- Ta hori soldau ziñala edo...?
- Ez, ez, ez, ez, ez. Aurrerau, aurrerau.
- Osake orduen eskola bidian hankak gogortu ta...
- Exakto. Hemetik Bergarara egunero fan ta etorri. Ba entrenau, gero eitten nau e. Gero eitten nauen igual askotan libre dauketenien hemendik fan, Bitorixara fan eta zeretik bueltan, Alsasuatik bueltan edo ba Beasain aldetik hortik hona; edo, bestekaldera, Urkiola igo, bajatu zeretik-edo.

6. Soldadutzan zerbitzua ez egiteko baimena kirolari moduan

- **Erref:** ESK-048/010
- **Iraupena:** 0:01:07. **Hasi:** 00:14:15. **Bukatu:** 00:15:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza
- Aisia » Kirola » Txirrindularitza

Laburpena:

<p>Soldadutzan zerbitzua ez egiteko baimena izan zuten kirolari moduan, berak eta Bergarako Txomin Garitano pilotariak. Bertan ere entrenatzera joaten ziren egunero etxeraino. Etxera joaten zen lotan eta hurrengo goizean Gasteizera, egunero horrela.</p>

Transkripzioa

- Soldadutza be horrexegaittik suertie euki neuen. Soldadutza nauela karo rebajauta euki istien, “como deportista”-edo, neu ta Garitano, pelotarixa, Bergarakua, Txomin, ba ha pelotarixa ona zan orduan, (...) jokatu auen ta bixok in guzen rebajauta ta goxien egon bigauen beatzitako kuartelien goxien beatzitako, bizikletan faten gintzen, ta bestiek bazkaitten-edo faten zirenien, ba gu libre. Ta orduen ba barriro entrenamien buelta, handik edo hamendik etxera. Egundero-egundero-egundero.
- A, ta orduen Bitorixara be egundero faten ziñan soldadutzara?
- Egundero, egundero,
- Eta lo eitten zeñun ala han?
- Hemen, hemen, hemen. Ta gero goixin fan, beatzitarako han, egundixen bazkaitten-edo ataten euenien, gu etxera. Rebajauta, rebajauta engozelako.
- Orduen zuek soldaduska euki zendun “media jornada”?
- Bai, bai. Ba Txomin pe... Txomin Garitano eta bixok egon gintzan. “Rebajaus de todo servicio”. Kuartela edo hau edo bestia.
- Deportistia ziñanelako e!
- Bai.

7. Errotabarriko koronela

- **Erref:** ESK-048/013
- **Iraupena:** 0:01:47. **Hasi:** 00:16:33. **Bukatu:** 00:18:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

Laburpena:

<p>Aretxabaletako Errotabarrin koronelen bat-edo zegoen. Elurra egiten zuenean Gasteiztik Eskiekin jaisten zen. Bera ere kirolaria zenez lortu zuen bera eta Bergarako Garitano Gasteizera joatea soldadutzan. Entrenamenduetako kontuak aipatzen ditu.</p>

Transkripzioa

- Horren aitta edo anai bat-edo euen, orduen euen koronela. Ni akordetan naz, gu mutikokuak eta hemen kriston edurrek eitten zittuein, ta ha bajetan zan eskiekin, hemen goittik behera “ri-ri” Bittorixatik. Bera koronel edo ez dakitt zer euen eta bere deportie eittie moduan ba hemen bajetan zan horrekin, etxera.
- Eta hori koroneleri euskalduna zan bera?
- Horkotxia.
- Ta baiña Francoren ejerzituen edo?
- Horixe ez dakitt. Uribesalgo. Ta horren gero seme bat be ibil zan Asturias aldin be bai futbolien be bai. Danak izan dire deporte zera. Uribe, Uribe. Uribesalgo ziren.
- Baiña hori zuen kuartelien euen?
- Karo.
- Ta horren eitten otsun zuri zerok.
- Horren isten lehelengo horra fateko. Bakitzu ze in bihar izete zan, ba o Kanariasetara tokau edo hara bestaldera, ta horrek Bitturixerako eiskun. Niri ta horri, Garitanori.
- Bera be deportistia ta.
- Ta harek esango ba: “e, estos dos”. “Cuarenta y seis” kuartela zan, Bittorixan. Euan “Flandes” ta “cuarenta y seis”-a eta artillerixia guria. Ta haixe enkomendaxiñuan. Aittaaz edo gure banaz eukielako zozer ba.
- Orduen eskolara eta soldaduskara bizikletan ibili zara.
- Bizikletan, bizikletan. Egunero. Gatzagara bizikletan igo biher. Lehen pantanua ez auen hor, ta Uribarrittik bajetan holako baten zuzenien, Arroiabe aldera zuzen. Gero in zan hori, pantanoko zer hori. Egunero. Baiña fan, lehelengo han beatzitako egon biher, bueltan sekule bez etxera, igual behin edo birritten igual e, beti o zeretik, Salvatierratik, zeretik bueltan edo Durangora bajatu edo... karo, ibili ein bihar zan ta.

8. Arotz lanetan

- **Erref:** ESK-048/015
- **Iraupena:** 0:00:55. **Hasi:** 00:18:34. **Bukatu:** 00:19:29
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Arotzak

Laburpena:

Arotz lanetan ere aritutakoa da Eskoriatzan. Bergarako eskolara joaten zen bitartean aritu zen arotz.

Transkripzioa

- Zu bizikletan ibiltzen zan garaixan lanik eitten zen edo edo etxien eitten zen lana?
- Lehelengoko karpinterixan ibili nintzan Eskoriatzan karpinterixa baten.
- Arotz?
- Bai. Bergaran bizi dan arrebia zaharrenak, esan osten beran familixako zozer zien hanguek eta: “koño, zegaittik fan behintzet, beti be hara ta”. Karpinterixan hantxe ba zeozetan, karpintero ikasi ba ezebez, etxeko etxin zeozer egin bihar bada bai baiño bestela ezebez.
- Eta zemat urtekin hasi ziñan aroztegixan?
- Hor, orduen hamalau urte-edo ez zan bihar izaten?
- Osea eskolia eskola akabau eta aroztegixara fan ziñan lanera?
- Arotzeixan nabillela nabillen zerien, arotzeixan eta gero Bergarakoa zera.
- A, bixak eitten?
- Bai. Bixek eitten edo zeozer eitten neban.
- Eskolia eta arotzeixa.
- Goxien hor egon apur baten eta gero bizkletan fan edo ez dakitt zer eitten nauen, bai? Holako bat. Baiña bizikletarik kendu bez.

9. Aita eta osabak ganadu-tratulariak

- **Erref:** ESK-048/017
- **Iraupena:** 0:01:11. **Hasi:** 00:20:05. **Bukatu:** 00:21:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:

Beraien aita ganadu-tratularia izandakoa zen, beste bi osabarekin eta beste batekin batera, 4 sozio ziren. Agurainera ere joaten ziren eta behin Agurainetik Gure Ametsa trenean 20 ganadu buru ekarri zituztela gogoratzen du. handik pinudietara eraman zituzten. Okeletako ganadua zen, Arrasateko eta Aretxabaletako harakinentzat.

Transkripzioa

- Ganaduak-eta bazeukatzuen.
- Gure aitta beti tratantia izan da.
- Ganau-tratantia?
- Beti. Ta Gatzagako tio bixek be, tio bixek be tratantiek. Ba orduen e akordetan naz ni Salvatierran kriston ferixie itten zan, ta gure aitta Bentafrakua bestia ta Gatzagako tio bixek, laurek soziuak ziren, ta akordetan naz baten, horra Gure Ametsako trena ha geraketan zan lekura, ekar zittuen hogeï ganau. Erosi zittuan Salvatierran ta horra ekarri zittuen emerjentzia baten, etor zittuen eta gu danok fan bai, ta handik ganau danak aurrien dittula hemetik beherutza geure piñudi batera. Ta hamen etxen eitten dozena bat karnazeruek orduen, joño bazekiñen bagatozela eta.
- A, okeletarako ganaua?
- Karo. Ta orduen: “hau neuretzako”, ez dakitzu? Markau eitten etten, “hau

neuretzako, bestien zein...”, Mondraorako ta Atxabaltarako. Enda zuzen basora erun gittun bai? Ta guk piñue orduntxe zerraua ta piñue sartu barrri, ba holako piñue-edo egongo zan, harek ekarren gosie sartu zirenien jo ta piñue ta danak jo zittuein. Akordetan naz ondo.

- Atzera be sartu bihar piñua.

- Joe, harek dakarren gosiaz. Ba ikusten euen berdia barrura. Bai, aitte tratantia izan da beti bai.

10. Mateo astoa

- **Erref:** ESK-048/021
- **Iraupena:** 0:02:03. **Hasi:** 00:22:50. **Bukatu:** 00:24:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

Astoa beti izan dute, Mateo izeneko astoa aipatzen du. Beti lotuta egoten zen eta eta Gatzagako Paskuel bete-beteta zegoela, txiza egon behar zuela eta Mateorengana joan zen, Mateok ostikada eman eta Jesusen aitari deika hasi zen Paskuel. Lan asko egindakoa izan zen Mateo, oso asto ezaguna izan zen. Asto zaharra zen Mateo eta Gatzagako batzuk Mateo hil eta jatea pentsatu zuten. Handik gutxira astoa hilik aurkitu zuten.

Transkripzioa

- Ta komunera joan bihar euela txize eitteko edo zerien ta atie zabaldu ta astue egote zan ixa han atera bittartian beti lotuta, Mateo euen izena, famosua Mateo, hemen munduen danien. Ta hak atie zabaldu orduko han illunien ba txiza eitten da itxuria astu aurrien txiza eitten atzetik eta astuorrek halakoren baten "ba!" zarta ostikadia, mekauden la letxe! Ikusten nau. " Ie, Prudentzio," -Prudentzio euen gure aittek izena- "zer jauk hor?" ta astu horrek ostikadia emon, jentiek barre ein. Ba astuen paraderue izen zan azkenien, hementxe Gatzako bat, lan eitte eben Mondraoen ta astue ya zutittu en biher izete zan noberak.

- A, ya zahartuta?

- Ondio, zaharra? Esate eben ehun bat urte eukiko zittuela. Ta karo zutik ibiltzen zan, igual fan Gatzara,erremolatxie ekarri guran "danba-danba", baia etzitten zanin zutittu ezin, karo danaoi pasau bihar jakuna.

- Artritisa.

- Bai, ezin zutittu ta orduen noberak jaso ein biher ta gero ba aurrera. Ta azkenien pentsau bien honek Gatzako, Gatzako zela zan izena? Bata han kastillokue zan, kastilloko mutilzahar bat zan, lehenau fraile-edo egondakue-edo. Bete-bete indda akordauko jok: "hi, hori Mateon zerak solomulluek jan bi'ku". Akordau e! astu hori solomillue jan bigula ta astuek ez dakit ba entendi edo ein euen edo zer astue ekarri horra tabernara ta joe (...) ein biher dogula solomillue jan biher dogula ta zera. "Bueno bueno, pentsau bez!" hartu eingo ben eta hurrengo ostien zer? Hurrengo egunien fan ta astue akauta, badakitzu zegaittik? Astueorreri ebatu azpittik da jasoten eta ez dakitzu? Auskalo, astu horrek ehun bat urte ba eukela. Ta sartu kotxien ta... bai ta hurrengo egunien astue ittuein akauta, aurreko egunien solomillue jan biher euela ta. Bai, hor akordetan naz, mekauden diez!

- Mateo.

- Mateo. Mateo izena.

11. Kontrabandoan Mateo astoa laguntzaile

- **Erref:** ESK-048/022
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 00:24:53. **Bukatu:** 00:26:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

<p>Garia Ozaetatik ekartzen zuen Mateo astoak. Bertan kargatu eta menditik astoa etxera joaten zen bakarrik, eta anaia bizikletan errepidetik. Beraiek jakiten zuten anaia noiz zetorren baina baita Guardia Zibilek ere. Egun batean etxeko tabernan egon ziren Guardia Zibilak zain, baina beraiek ikusi barik, astoak zekarren garia batu eta Guardia Zibilak astoa deskargatuta ikusi zutenean harritu egin ziren.</p>

Transkripzioa

- Eta zuek garixa eta artua-eta ereitten zittuein-edo?

- Ez, ez. Garixa horrek, Mateok ekarri zeretik Ozaetatik eta hortik. Gure anai bat be orduen estraperluan-ta, bakitzu estraperluan garixa harten ta jentie ibilli zan ta hari astuei, Ozaeta edo Asuan edo hor, kargau ehun

kiloko zorroa-edo ta han esan: “Arre!”. “Arre!” esan ta hortik mendittik ha marjiñie ez dakitzu? Hara urten baserritik, hortik Dorletatik, astue etxera. “Arre!” esanda e! ta bera ba bizikletan edo danetik bizikletan kamiñotik. Etxera etorri.

- Astua listua zekazuen orduan.

- Ta anekdotie beste bat da. Karo guk bagenekixen anaia hori datorrenik hiru-lau astogaz igual urteten euen Ama Birjiña ondora, Guardia Zobillak be jakiñien e, danak jakiñien “este suele traer trigo” bestiek eta zer, enda han zain euela ni bizikletan fan ta: “E, etxazek iño be”. Handik Ama Birjiñe bajatu, Ama Birjiñe hortik zeretik etxera. Ta etxakiñot [...] edo ez dakizu? Ba egun baten bera goittik bera ta etorten naz etxien ta Guardia Zobillek gurien, tabernan, tabernan hortxe mostradorien zozer ta “Hi ba etxien jazak!”. Harek “Este tío ya vendrá pues, tiene que llegar ahora, ya vendrá”. Ta Guardia Zobillek barruen dazela, hortik etxe ostetik bueltan astue sartu itxuera, deskargau ta gure anaia kontrabandistiori atien ra urten han ra ta Guardia Zobillek bertan ta: “hola”, “hola”, ostia esango euen “¿Y este? Le estábamos esperando ¿y este?”. Guk astue deskargauta ta holaxe pasau zan.

- Ta haik zain.

- Haik zain.

- Hareik pentsaitten eben astuakin harrapoko ebeilla.

- Klaro, Klaro.

12. Periko Arrasatera garia eramatera

- **Erref:** ESK-048/023
- **Iraupena:** 0:01:14. **Hasi:** 00:26:43. **Bukatu:** 00:27:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Garia

Laburpena:

Beranduago furgoneta batean garia eramaten zuten Arrasatera, Periko Arrasate okindegira. Jesusen anaiak furgoneta topera beteta, eta Guardia Zibilak adi egoten ziren, baina Jesus furgoneta aurretik bizikletaz joaten zen abisatzeko.

Transkripzioa

- Gero eruten gauen furgoneta bat auken gero, erosi auen aittek edo semiek, anaiek-edo euranak beti Arrasatera, Periko Arrasate? Mondraoen. Bazakizun nun auen? Entraeran dau.

- Sarreran, ezkerrera. Panaderixie euan, ezta?

- Eskuman, panaderixia bai, Periko Arrasaten panaderixia. Ta hara eruten euen tolara bat euen.

- Joxe Bixentek kontau eustan han zera aiuntamientoko garixa han ixoten zala, ezta?

- Bai, dana dana dana. Ta taula bat euen ta hauxe zabalketie letxe tobie barruen ta hara zakuek esketan ziren. Ta gure anaiek furgonetie garixe a tope kargaute Guardia Zobillek hor egoten ziren, Marianistak ta hori, Eskoriatzatik Atxabaltako bittarteko zerin, hor ibiltzen ziren. Ta ni bizikletan; anaia geruau. Eta: “hik bijilau”, ta mekaueu dios! Igual hantxe, ta Goardia Zobilla, haik ezautu gendun ta nik berutza fan, baiña behien buelta ein eta gorutza ta anaiak alto: “e, hor jazak!”. Ba norabataittera sartu edo gorde edo buelta edo in ta hola ibiltzen nintzen.

- Ta gero ze eitte zeuen gari horrekin? Etixerako euki?
- Saldu ez ez ez, ez. Perikori. Ba horixe, horixe eitte auen-eta.
- Estraperluan Arabatik.
- Estraperlua.

13. Marulandako taberna

- **Erref:** ESK-048/024
- **Iraupena:** 0:01:08. **Hasi:** 00:27:57. **Bukatu:** 00:29:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak

Laburpena:

Marulandako taberna beti izan dute etxean. Lehenago denda ere bazen. Ardoa ere saltzen zuten. Bere ama zen bertako arduraduna, eta amaren familiak Leintz Gatzagan ere denda eta taberna zuten.

14. 12-13 arrautza frijitu egunero

- **Erref:** ESK-048/025
- **Iraupena:** 0:01:11. **Hasi:** 00:29:05. **Bukatu:** 00:30:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa

Laburpena:

Azatzako abadea zen bere osaba, eta beti berarengan bizikletan joaten zen. Arrautza jatea txarra oken zen baina berak 12-13 arrautza frijitu jaten zituela dio, baina berari ez zion kalerik egiten.

15. Espainiako txapeldun plater-tiroketan

- **Erref:** ESK-048/026
- **Iraupena:** 0:02:31. **Hasi:** 00:30:16. **Bukatu:** 00:32:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Beste kirol batzuk

Laburpena:

<p>Plater-tiroketarako zaletasuna izan du. Ehizan ibilitakoa da eta eskopetarekin duen abilitadearen ondorioz, Errusian ere egon zen talde nazionalarekin. Espainiako txapeldun ere izan zen. Francoren garaiko Espainiako ereserkia entzun behar izan zuen.</p>

16. Munduko txapelketan Moskun

- **Erref:** ESK-048/028
- **Iraupena:** 0:02:48. **Hasi:** 00:34:12. **Bukatu:** 00:37:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Kanpora lanera
- Aisia » Kirola » Beste kirol batzuk

Laburpena:

Moskun (Errusian) egon zen. Espainiak zilarrezko domina lortu zuen plater-tiroketan. Berak 200etik 193 egin zituen eta hirugarren egin zuen. Hurrengo urtean Bartzelonan egon zen Europako txapelketa. Momentu horretan guztien artean onena errusiar bat zen eta hari buruz hitz egin du. Errusiako garaiko kontuak ere gogoratzen ditu.

17. Aduanako kontrolak

- **Erref:** ESK-048/030
- **Iraupena:** 0:02:59. **Hasi:** 00:37:09. **Bukatu:** 00:40:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Beste kirol batzuk
- Ekonomia eta industria » Kanpora lanera

Laburpena:

Errusiara olinpiadetara joan zeneko kontuak. Aduanan nolako kontrola zegoen kontatzen du. Ezin zen ia ezer ekarri Errusiatik hona. Errusian hotz handia egiten zuela gogoratzen du.

18. Errusiako hotzaren eragina entrenamenduetan

- **Erref:** ESK-048/032
- **Iraupena:** 0:02:06. **Hasi:** 00:41:05. **Bukatu:** 00:43:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Kanpora lanera
- Aisia » Kirola » Beste kirol batzuk

Laburpena:

Horrenbesteko hotza egiten zuen Errusian zortzi zenbakidun perdigoiarekin barik zazpi zenbakidunarekin entrenatu behar izaten zutela. Aldaketa nabaria zegoen bien artean. Bera zen bertako euskaldun bakarra; Espainiako taldean zeuden gainontzekoak Madrilgoak ziren.

19. Kamioilari lanetan

- **Erref:** ESK-048/033
- **Iraupena:** 0:01:26. **Hasi:** 00:43:11. **Bukatu:** 00:44:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Batetik bestera zebiltzanak
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Beste garraio batzuk

Laburpena:

Txirrindulari izateari utzi zion kamioiarekin lanean hasteko. Gau eta egun aritzen zen lanean. Gurpilak eta haguak (llantak) eramaten zituzten Seatera,

zerrajeran egindakoak. Handik bueltan askotan Calahorra aldetik eraikuntzarako materiala ekartzen zuen Bilbo aldera.</p>

20. Fagorreko gidaria

- **Erref:** ESK-048/037
- **Iraupena:** 0:01:25. **Hasi:** 00:47:25. **Bukatu:** 00:48:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debabarreneko lantegiak
- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:

Fagorren ere gidari lanetan aritu zen. Sasoi hartan Fagorren lanean hastea gaitza zen. eta bertan egon zen 30 urtez. Kamioiarekin zein kotxearekin aritzen zen.

21. Azeriak oiloak erasotzen

- **Erref:** ESK-048/040
- **Iraupena:** 0:00:36. **Hasi:** 00:50:10. **Bukatu:** 00:50:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Fauna » Natura » Basoko animaliak » Ugaztunak

Laburpena:

<p>Oilategia kendu zuten azeriengatik. Behin 15-17 oilo hil zizkieten gau batean. Noizbait zepoarekin azeriren bat harrapatu izan du.</p>

22. Bateria-jotzaile erromerian

- **Erref:** ESK-048/042
- **Iraupena:** 0:02:13. **Hasi:** 00:51:20. **Bukatu:** 00:53:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:

Domekero jaia izaten zuten. Berak jasbana (bateria) jotzen zuen, bere anaiak akordeoi txikia eta koinatuak tronpeta. Mahai bat kanpora atera eta han jotzen zuten. Bertan festa itzela antolatzen zuten. Hasieran Marulandan jotzen zuten, baina azkenerako domeka bat Leintz Gatzagan eta beste bat Marulandan, txandaka aritzen ziren. Eskoriatzako Osintxu anaiak ere akordeoia jotzen zuten, eta askotan beraiekin joaten zen herririk herri. Oraindik jotzen du noizean behin akordeoia.

23. Eskoriatzako eskolako kokalekua

- **Erref:** ESK-048/045

- **Iraupena:** 0:00:33. **Hasi:** 00:55:03. **Bukatu:** 00:55:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

Eskoriatzan eskola nazionalak non zeuden azaltzen du.

24. Dopatu zutenekoa I

- **Erref:** ESK-048/050
- **Iraupena:** 0:03:31. **Hasi:** 00:58:59. **Bukatu:** 01:02:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Txirrindularitza

Laburpena:

<p>Behin drogatu egin zuten Jesus, Donostian, Aieten. Lasterketa oso gogorra zen, Jaizkibel igo behar zuten. Bezperan, bere taldekide batek, Abadiñoko Urienek, Lefa izeneko pilulak erosi zituen botikan eta haiek hartzeko gomendatu zion Jesusi. Hala ere, aurretik gelditu zen.</p>

25. Dopatu zutenekoa II

- **Erref:** ESK-049/002
- **Iraupena:** 0:01:19. **Hasi:** 00:00:06. **Bukatu:** 00:01:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Txirrindularitza

Laburpena:

Irundik Kursaalera, txirrindularitza lasterketa batean: 17 segundoko aldea atera zien gainerakoei, Ategorrietatik helmugara. Behin bakarrik dopatu da, orduantxe.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-07-15

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com